



Txalaka

Gazi-garratza

NEURRIA Tartekoa baino haundixeagoa.

ITXURA Sagar konkorduna, nola goi-aldean, ala behean.
Begi ondoko sakona, txurten ondokoa bezain haundia.
Txurten motza, ia ikusten ez dena.

MARGOA Berde argitsua, tita gris txikiekin.

Nabar-mantxak, azpi aldean.

AZALA Mehea, gogorra eta latz samarra.

MAMIA Zuria. Gogorra. Kirrizkaria. Zumo askokoa.

OHARPENAK

Sagardogintzan, estimatuena. Sagardogile gehienentzako,
sagar hoberena. Zaharrak esaten duenez, Astigarragako
Txalaka izeneko baserritik datorkio bere izena.

TXALAKA
Arik - arik



Txalaka baserria, txalaka sagarraren sorlekua?



Sagardotarako sagar motarik ezagunena Txalaka da. Gazia da, mikatz samarra eta urtsua, eta sagardogile guztiek oso estimatzen dute. Zenbaiten iritziz, Astigarragako Txalaka baserritik datorkio izena sagarrari, eta bertan bizi diren Minertar anaiek hau adierazi digute: "Paraje honetan uholdeak izan dira askotan eta behin, uholde batek utzitako zabor artean sagarrondo bat erne zen. Baserri honetako aitonaren batek hartu zuen landare hura eta ondoko zelaian zeharrraldatau. Leienda da, baina egiaren itxura duen leienda".